

Eleaniztasun goiztiarrari bai, baina ez edonola

(An early introduction of a third language but not any way)

Garagorri, Xabier
Gipuzkoako Ikastolen Elkarte
Anoeta pasealekua, 22
20014 Donostia

BIBLID [1137-4446 (2000), 11; 97-117]

Irakaskuntza elebidunaren (euskara-gaztelania) esperientziaren bideragarritasuna 30 urte baino gehiagoko epealdian frogatu ondoren, ikastolok eleaniztasun goiztiarraren erronkari 1991-92. ikasturteetik aurrera aurre egiten hasiak gara. Komunikazio honen lehen atalean ingelesaren irakaskuntza goiztiarra egitasmoaren ezaugarri nagusien azalpena egiten da: eleaniztasunaren planteamendu orokorra, helburuak, ikasmaterialen sorkuntza, irakasleen prestakuntza eta ikasleen ebaluazioa. Bigarren atalean, gure esperientzia oinarrituz, eta eguneroko praktikan ikusten ditugun alde onak eta zailtasunak kontuan hartuz, geurea bezalako berrikuntza bat aurrera eramateko, proiektuen antolaketa eta kudeaketaren ikuspegitik, zaindu behar diren baldintzak aipatzen ditugu. Gure ustez, eleaniztasun goiztiarraren planteamendua egokia da, baina planteamendua bera baino garrantzizkoagoa da nola eta zein baldintzetan egiten den berrikuntza hori jakitea.

Giltz-Hitzak: Eleaniztasun goiztiarra. Inglesaren irakaskuntza goiztiarra. Atzerriko hizkuntza. Proiektuen antolaketa eta kudeaketa. Berrikuntzaren baldintzak.

En las ikastolas, tras más de 30 años de experiencia, hemos podido comprobar la viabilidad de la enseñanza bilingüe (euskara-castellano) y a partir del curso 1991-92 hemos iniciado la experiencia del plurilingüismo temprano con la introducción del inglés como lengua extranjera a partir de los 4 años. En la primera parte de esta comunicación, se presentan algunos aspectos de esta última experiencia, tales como su planteamiento general, objetivos, organización, realización de materiales, planteamiento de formación y seguimiento del profesorado, evaluación de los alumnos. En la segunda parte, partiendo de nuestra experiencia y teniendo en cuenta los aspectos positivos y dificultades que vamos encontrando, se describen aquellos requisitos que, desde la perspectiva de organización y gestión de un proyecto, nos parecen importantes para llevar adelante una experiencia como la nuestra. La idea general es que el planteamiento de la introducción temprana de una lengua extranjera puede ser adecuado, pero que lo más importante es cómo se pone en práctica ese planteamiento.

Palabras Clave: Plurilingüismo temprano. Enseñanza temprana del inglés. Lengua extranjera. Organización y gestión de proyectos. Requisitos para la innovación.

Dans les ikastolas, après plus de 30 ans d'expérience, nous avons pu prouver la viabilité de l'enseignement bilingue (euskara-espagnol) et à partir de l'année scolaire 1991-92 nous avons initié l'expérience de l'enseignement polyglotte précoce en introduisant l'anglais comme langue étrangère à partir de 4 ans. Dans la première partie de ce rapport nous présentons quelques aspects de cette dernière expérience tels que son présentation générale, ses objectifs, son organisation, réalisation de matériels, présentation de la formation et suivi des professeurs, évaluation des élèves. Dans la seconde partie, en partant de notre expérience et en tenant compte des aspects positifs et des difficultés que nous rencontrons, nous décrivons les conditions qui, du point de vue de l'organisation et de la gestion d'un projet, nous semblent importantes pour la réalisation d'une expérience comme la notre. L'idée générale est que l'idée de l'introduction précoce d'une langue étrangère peut être adéquate, mais que le plus important est la façon dont on met cette idée en pratique.

Mots Clés: Enseignement polyglotte précoce. Enseignement précoce de l'anglais. Langue étrangère. Organisation et gestion des projets. Conditions requises pour l'innovation.

SARRERA

Irakaskuntza elebidunaren (euskara-gaztelania) esperientziaren bideragarritasuna 30 urtez frogatu ondoren, ikastolok eleaniztasunaren erronkari aurre egin nahi diogu. Orain arteko elebitasunaren planteamendua, euskara hizkuntza nagusi izanik, gaztelania (hegoaldean) edo frantsesa (iparraldean), bi hizkuntzak ondo ezagutzeko eta erabiltzeko gaitasuna lortzea izan bada, hemendik aurrera, elebitasunaren planteamenduari eutsiz, atzerriko hizkuntzen ezagutza gehitzea du helburu eleaniztasunaren planteamenduak. Gure kasuan, ingeles hizkuntzaren irakaskuntza goiztiarra 4 urtetik aurrera eta frantsesaren irakaskuntza 12 urtetik aurrera. Erronka berri honi 1991-92. ikasturtean hasi gintzaizkion erantzuten. Hasieran 8 ikastola izan ziren eta piskana-piskana kopurua hazten joan da. Ikasturte honetan 47 ikastoletako 8.500 ikasle inguru daude proiektuan sarturik 4 urtetik hasi eta, oraingoz, 11 urte arte. Zazpi urte badira proiektua hasi zela eta beste bost gehiago falta dira (2002-03) ikasleen lehen promozioak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukaeran (16 urte) aurrez ikusitako helmugara iritsiko diren jakiteko.

Aurkezpen honetan, *lehen atalean*, egitasmoaren ezaugarri batzuk agertuz egiten da eleaniztasunaren planteamendu orokorra: helburuak, ikasmaterialen sorkuntza, irakasleen prestakuntza, ikasleen eta egitasmoaren ebaluazioa, proiektuaren antolaketa eta kudeaketa, parte hartzeko bete behar diren baldintzak, etab. *Bigarren atalean*, horrelako berrikuntza batean eguneroko praktikan sortzen diren arazoak, gure ustez antolaketa eta kudeaketa ikuspegiatik zaindu behar diren baldintzak eta bidean sortzen zaizkigun kezkak aipatzen dira. Egiten dugun hausnarketa horren abiapuntua ez da teorikoa eta deduktiboa, gure esperientzian eta eskarmentuan oinarrituta egiten dena baizik.

Horrelako berrikuntza bat aurrera eramateko gutxieneko baldintza batzuk bete behar dira, horrelako esperientziak, hasi orduko, erdibidean gera ez daitezten. Hala ere, hausnarketa honen helburua ez da inolaz ere egoera guztietan aplikagarri izango liratekeen ondorioak eta bete beharreko araudia ateratzea, -egitasmoen abiapuntuak, baldintzak eta testuinguruak ez baitira inoiz berdinak-, gure kasuan eleaniztasun goiztiarra egitasmoa antolatzeko eta kudeatzeko orduan garrantzizko suertatzen ari zaizkigunak adieraztea baizik. Helburua, beraz, gure esperientzian eta horren hausnarketan oinarrituz, iritziak trukaketzea da, antzeko proiektuetan ari edo hasteko asmotan zaretenontzat, gure esperientzia zuentzat ere jakingarri eta esanguratsu izango delakoan.

1. "ELEANITZ" PROIEKTUAREN AZALPENA

Zerk eraginda hasi ginen ikastoletan berrikuntza hau egiten? Erabaki hori hartzerakoan, funtsean, hiru arrazoi izan genituen kontuan. Batetik, Europako Elkarteko esparru ekonomikoaren, politikoaren eta sozio-kulturalaren integrazioa eta horrek europar gizabanakoengan zuen eta izango duen eragina nabarmena zen. Argi ikusten genuen Europan bizitzeko eta bertan integratzeko, euskara eta gaztelaniaz aparte, euskaldunok beste europar hizkuntzak menderatzea beharrezkoa genuela. Bestetik, elebitasunaren planteamendu ofiziala aurreko egoerarekiko aurrepausoa izanik ere, argi ikusten genituen planteamendu horren mugak epe erdira, ezinezkoa baita gaztelania edo frantsesa bezalako estatus internazionalako hizkuntzak, egoera minorizatuan dagoen euskararekin batera, bata bestearen ondoan egoera orekatuan bizitzea. Euskarak, iraungo badu, bere hizkuntza eremuan hizkuntza nagusi izatera iritsi behar du, baina argi dago, era berean, euskaldunok euskaraz aparte beste hizkuntzak erabiltzeko gauza izan behar dugula, bestela euskara bera ere arriskuan baitagoke. Lortu nahi duguna, beraz, bi elementu hauek uztartzea da, hots: alde batetik, euskarak bere hizkuntza eremuan behar duen garapen osoa lortzea eta, bestetik, beste hizkuntzen ezagutza

eta erabilera erdiestea. Hori lortzeko era bakarra eleaniztasunaren eskutik dator. Eta azkenik, baina ez azkena, eleaniztun izateak, dituen abantaila instrumental, profesional eta, batez ere, sozialaz gainera, badiu, adituen ustez, gizabanakoaren garapenari begira beste abantaila batzuk: pentsaera kreatiboagoa eta adimenaren malgutasun handiagoa erdiesten da, komunikatzeko eta harremanetarako gaitasun gehiago lortzen da, hizkuntza gehiago ikasteko erraztasuna lortzen da.

Baina nola gauzatu eleaniztasunaren planteamenduaren asmo hori? Argi dago asmo horretara iristeko bide bat baino gehiago badagoela. Zein da guk egindako planteamendua? Zein dira helburuak? Zein helburu horiek lortzeko jarritako baliabideak? Zein dira orain arte jasotako lorpenak? Jarraian galdera horiei erantzuten saiatuko gara.

1.1. Irakaskuntza eleanitzaren planteamendu orokorra eta helburuak


Eleaniztasunaren planteamenduak, esan bezala, ez du orain arteko elebitasunaren planteamendua ukatzen, osatzen baizik. Hau da, orain arteko elebitasunaren planteamendua, euskara hizkuntza nagusi izanik, gaztelania (hegoaldean) edo frantsesa (iparraldean), bi hizkuntzak ondo ezagutzeko eta erabiltzeko gaitasuna lortzea izan bada, hemendik aurrera, elebitasunaren planteamenduari eutsiz, atzerriko hizkuntzen ezagutza eta erabilpena izango da eleaniztasunaren planteamendua.

Zein aukeratu atzerriko lehen hizkuntzatzat, ingelesa ala frantsesa?. Arrazoi sendoak izan daitezke lehen aukera frantsesaren zein ingelesaren alde egiteko. Horren aurrean, antolatzaileok hasieran bi aukera horiek eskaini genituen eta erabakia ikastolen esku utzi genuen. Ikastola guztiek ingelesa aukeratu zuten eta ordutik aurrera ingelesa hartu dugu atzerriko lehen hizkuntzatzat.

Gaur egun proposatzen dugun irakaskuntza eleanitzaren planteamendu orokorra hau da:

	Maila	Adina	Euskara	Gaztelania	Ingelesa	Frantsesa
H.H	1	3-4	X			
	2	4-5	X		X	
	3	5-6	X		X	
L.H.	1	6-7	X		X	
	2	7-8	X		X	
	3	8-9	X	X	X	
	4	9-10	X	X	X	
	5	10-11	X	X	X	
	6	11-12	X	X	X	
DBH	1	12-13	X	X	X	X
	2	13-14	X	X	X	X
	3	14-15	X	X	X	X
	4	15-16	X	X	X	X

Taula honetan ikus daitekeenez, lau hizkuntza irakasteko planteamendua egiten dugu. Euskararen eta gaztelaniaren kasuan ez dago aldaketarik, hau da, euskarak jarraitzen du irakaskuntzako hizkuntza nagusi izaten eta ikasleek, gaztelaniaz ordu gutxiago aritu arren, euskara bezain ondo menderatzea lortu behar dute. Berrikuntza nagusia atzerriko lehen hizkuntzaren (ingelesaren) irakaskuntza goiztiarrean datza. Atzerriko bigarren hizkuntza (frantsesa) irakasten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren hasieran hasten da. Ikastola batzuetan alemana ikasteko aukera ere eskaintzen da.



Planteamendu orokor honekin lortu nahi diren **helburuak**:

Euskarari eta gaztelaniari dagokionez, legez ezarrita daudenak lortzea da helburua, hau da, "ikasle guztiei, baldintza beretan, derrigorrezko hezkuntzaren bukaerarako bi hizkuntza ofizialen ezaupide praktikoa bermatzea, euskararen erabilpena eta normalizazioa indartuz".

Atzerriko lehen hizkuntzari, hau da, *ingelesari* dagokionez, ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatzean (16 urte), lortuak izan beharko dituzte atzerriko hizkuntzei buruz Dekretuak etapa horretarako arauz seinalatutako ulerpen, produkzio, irakurketa, idazketa, hizkuntz gogoeta, jarrera, etab.etarako hizkuntza gaitasunak. Eta gutxieneko eduki horiez gainera, ondoko hauek:

- a) Ikasleak gai izan bitez ahozko eta idatzizko harremanak ingelesez mantentzeko elkarren arteko komunikazio arrunt batean.
- b) Erabil bezate ingelesa transmisio-hizkuntza bezala aldeztetik seinalatutako eskola-gaiak jorratzeko.
- c) Gai izan bitez ingeles hizkuntzari buruzko analisi gramatikalak egiteko, halaber hizkuntza honek beste hizkuntzekiko dituen erlazio eta interferentziak aztertzeko.
- d) Esperientzia hori jarraitu ez dutenek bezain ongi mendera bitzate euskara eta gaztelania eta adimen garapen bera lor bezate.

Atzerriko bigarren hizkuntzari dagokionez, hau da, *frantsesari* eta kasu batzuetan *alemanari*, hizkuntza horren lehen hurbilpena egitea da helburua.

Esan behar dugu 1991-92. ikasturtean guk egindako planteamendu hau, Europako Batzordeak, 1995. urtean plazaratu zuen "Hezkuntza eta prestakuntzari buruzko Liburu Zurian" berresten duela gure planteamendua. Eleaniztasunari buruz haxe esaten da:

"Europako Elkarteko zenbait hizkuntza ahalik eta hiritar gehienek ezagutzeak, Europako Elkarteko ekonomiaren, teknikaren, zientziaren eta kulturaren bilakaerari eta barne kohesioari indar handiz eragingo dio, betiere herrialde eta eskualde kideen nortasun kulturala zainduz"

Eleaniztasunaren planteamendua gauzatzeko proposatzen duen bidea ere bat dator gurearekin:

"Elkarteko hiru hizkuntzen ezaupide eragingarria lortu ahal izateko, atzerriko lehen hizkuntzaren irakaskuntza Haur Hezkuntzatik hastea komeni da eta Lehen Hezkuntzan sistematizatzea beharrezkoa da. Atzerriko bigarren hizkuntza Bigarren Hezkuntzan hastea beharrezkoa da, eta, europar eskoletan egiten den bezala, atzerriko lehen hizkuntzan ikasgai bat irakastea komenigarri litzateke. Derrigorrezko hezkuntza bukatzerakoan, ikasle guztiek bi hizkuntza europar ikastea"

1.2. Atzerriko lehen hizkuntza (ingelesa) ikasten hasteko saio goiztiarra

Hemendik aurrera, eleaniztasunaren planteamendu orokorra azaldu ondoren, "Eleanitz" proiektuaren berrikuntzarik handiena suposatzen duen ingelesaren irakaskuntza goiztiarraz arituko gara. Berrikuntza honetako hiru ardatz nagusiak materialen elaborazioa, irakasleen prestakuntza eta jarraipena eta proiektuaren eta ikasleen ebaluazioa dira. Baina ardatz bakoitzaren aipamena egin aurretik, proiektuaren ezaugarri eta datu batzuen, eta egi-tasmoaren antolaketa eta kudeaketarekin zerikusia duten elementu batzuen aipamena egin-go dugu.

1.2.1. PROIEKTUAREN BILAKAERA ETA SARTZEKO BALDINTZAK

Proiektua, esan bezala, 1991-92. ikasturtean 8 ikastolarekin hasi zen eta urtero ikastola berriak joan dira sartzen. 1998-99. ikasturte honetan 47 ikastola, 450 gela eta 8.500 ikasle inguru daude proiektuan sarturik 4 urtetik hasi eta, oraingoz, 11 urte arte.

Proiektuan sartzea borondatezkoa da, baina baldintza batzuk bete behar dira proiektuan parte hartu ahal izateko. Horretarako hitzarmen bat izenpetzen da, alde batetik, proiektuan sartu aurretik baldintzak argi jakiteko eta, bestetik, konpromisoa bermatzeko. Eskatzen diren baldintzak hauek dira:

- a) D ereduko eskola izatea.
- b) Ingelesaren irakaskuntza 4 urterekin hastea eta 16 urte arte jarraitzea.
- c) Ziklo eta etapa desberdinetarako aurreikusita dauden saio eta ordu kopuruak betetzea.
- d) Proiekturako prestatzen ditugun ikasmaterialak erabiltzea.
- e) Proiektuan jarraitzeko baldintzak betetzen dituzten irakasleak hautatzea.
- f) Aurreikusita dauden prestakuntza saioetan irakasleek parte hartzea.
- g) Aurreikusita dauden ebaluazio saioetan parte hartzea.
- h) Proiektuak dituen kostuak ordaintzea.

Aste bakoitzerako aurreikusita dauden saio kopurua eta saio bakoitzaren iraupena hauxe da:

Maila	Adina	Saio kopurua aste bakoitzean	Saio bakoitzaren iraupena	Denbora guztira astean
Haur Hezkuntza	4-5	5	30'	2,30'
	5-6	5	30'	2,30'
Lehen Hezkuntza	6-7	4	45'	3
	7-8	4	45'	3
	8-9	4	45'	3
	9-10	4	45'	3
	10-11	3	60'	3
	11-12	3	60'	3
Derrigorrezko	12-13	4	60'	4
Bigarren Hezkuntza	13-14	4	60'	4
	14-15	5?	60'	5?
	15-16	5?	60'	5?

1.2.2. PROIEKTUAREN ANTOLAKETA ETA KUDEAKETA

Proiektuaren sustatzailea Ikastolen Elkartea da. Ikastolen Elkartearen gobernu-organoa, ikastoletako kide ordezkariak osatzen duten Talde Bateragilea da eta horiei dagokie proiektuari buruzko azken erabakiak hartzea.

Eguneroko funtzionamenduaren gidaritza hiru pertsonaz osatutako Zuzendaritza taldeak du: zuzendaria eta bi arduradun nagusi. Hauen arteko eginkizunen banaketa malgua da, baina zuzendariaren ardura nagusia proiektuaren diseinua aurkeztea, onarpena jasotzeko bideak prestatzea eta giza-baliabide beharrezkoak, baliabide materialak eta funtzionalak aurkitzea eta horien kudeaketa eramatea da. Arduradunen eginkizuna, batez ere, bi eremutan gauzatzen da: batetik, ikasmaterialen diseinua eta sorkuntza lanetan (egile eta egile-taldearen gidari gisa), eta bestetik, irakasleen prestakuntza eta jarraipenean. Zuzendaritza taldearen eginkizuna da ikastoletako zuzendariak osatzen duten proiektuaren “Jarraipen eta Aholku taldearen” gidaritza ere.

Zuzendaritza taldeko pertsonaz gain ikasmaterialen sorkuntzan, irakasleen prestakuntzan eta ikasleen ebaluazioan ari direnak aipatu behar dira. Hauei buruzko xehetasunak ondorengo ataletan jasotzen dira.

1.2.3. MATERIALEN ELABORAZIOA

Materialen elaborazioa da proiektuaren muina eta bihotza. Materialetan islatzen dira hizkuntzen irakaskuntzari buruzko ikusmolde teoriko-metodologikoak eta helburuak lortzeko aukeratzen diren edukiak eta jarduerak. Materialetan oinarrituz egiten da gelako eguneroko lana, hots, bideratzen da irakaslearen praktika eta ikasleen ikaskuntza prozesua eta ebaluazioa. Materialen planteamendu teoriko-metodologikoan eta horien aplikazioan eta hobekuntzan oinarrituz egiten da irakasleen prestakuntza. Materialetan oinarrituz gorpuzten da talde lana eta proiektu bateratua.

Gurea bezalako proiektu bat bideragarri izateko bete behar den lehen baldintza nagusia ingelesa ikasteko material egokiak eskuratzea da, eta material egoki horiek ez badira aurkitzen, orduan, material propioak prestatzea ezinbesteko lana da. Horixe izan da guk jarraitutako bidea.

Une honetan, 4 urtetik hasi eta 12 urte arteko ikasmaterialak eskuetan ditugu eta prestatzen ari gara 12-14 urtekoentzako jarraipena. 1991n hasi ginenetik, 4-6 urteko ikasleentzat, Josep M^a Artigal-ek sortutako *“Ready for a Story”* ikasmaterialak eskuratu ditugu. 1992tik 1995era, Europako Elkarteko Lingua programaren babesean, 6-8 urteko ikasleentzat *“The Adventures of Hocus and Lotus”* ikasmaterialak sortu ditugu Erromako “La Sapienza” Unibertsitateko Traute Taeschner irakasleak koordinatuta, Birmingham-eko Unibertsitate, Amsterdam-eko Institutu eta EHUKo Hizpei-rekin batera. 1996tik aurrera Ikastolen Elkarteko Itziar Elorza, Diana Lindsay eta Xabier Garagorrik hartu dute lanaren koordinazioa eta Sokrates-Lingua D programaren babesean eta lehengo bazkide berekin batera, 8-10 urteko ikasleentzat *“Story Projects”* materialak eta 10-12 urtekoentzat *“The Explorers”* materialak plazaratu ditugu. Une honetan, 12-14 urtekoentzat *“Subject Projects”* izenez ezagutuko diren materialak prestatzen ari gara. Ikasmaterialen prestaketa lana, 14-16 urteko ikasleentzat ingelesez ikasteko arlo baten aukerarekin borobilduko da, baina fase horretan ere beste material osagarri batzuk sortzeko beharra aurreikusten da.

Adina	Materialak
4-6	Ready for a Story
6-8	The Adventures of Hocus and Lotus
8-10	Story Projects
10-12	The Explorers
12-14	Subject Projects
14-16	Ingelesez ikastarlot bat

Ikasmaterial hauek zabaltzeko ez ditugu merkatuko betiko bideak erabiltzen, horien erosketa irakasleen prestakuntzarekin batera pakete batean eskaintzen baita. Neurri hau beharrezkoa iruditzen zaigu, zeren 4tik 8ra arteko materialen planteamendu metodologikoa, dramatizazioaren eta espazioaren banaketak garrantzi handia hartzen duen neurrian, ez baita betikoa. Eta 8 urtetik gorako materialak, planteamendu metodologikoaren berezitasunaz gain, CD-Rom formatuan eskaintzen dira. Material hauek irakasleen prestakuntzarik gabe ez zaizkigu erabilgarri direnik iruditzen, horregatik merkatuko ohiko bideak erabiltzea alferrikako salmenta bat dela uste dugu.

1.2.4. IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA ETA JARRAIPENA

Ikasmateriagintza hain garrantzizkoa izanik ere, hanka motz geratzen da irakasleen prestakuntzarekin batera ez bada horien erabilpena planteatzen. Ikasmaterialak tresnak dira, irakasleen eskuetan jartzen diren tresnak. Tresna horiek kalitate handikoak izan daitezke baina ez dute ezertarako balio horiek erabili behar dituzten irakasleak ez badira trebeak.

Bi prestakuntza mota eskaintzen ditugu: oinarrizko prestakuntza orokorra eta espezifikoa. Oinarrizko prestakuntza orokorraren helburua, batetik, irakasleen ingeles maila hobetzea da eta, bestetik, hizkuntzak irakasteko irakasleen prestakuntza teoriko eta didaktikoa hobetzea. Helburu horiek lortzeko, urrutitik egiten den irakaskuntzaren teknologia erabiliz, bi ikastaldi trinko eskaintzen ditugu, bakoitza 250 ordukoa. Prestakuntza mota hau edozein irakaskuntza egoeratarako egokia izan daitekeenez eta bertan ingelesa irakasten duten era guztietako irakasleek parte har dezaketenez, orokorra deitzen diogu.

Prestakuntza espezifikoa “Eleanitz” proiektuan parte hartzen duten irakasleentzat da. Honen helburua adin eta maila bakoitzerako prestatu ditugun ikasmaterialak egoki erabiltzeko prestakuntza eskaintzea da. Prestakuntza mota hau hiru zutaberen inguruan antolatzen da:

a) Informazio teorikoa eta didaktikoa:

Honen helburua da ikasmaterialak sortzeko oinarri bezala erabili diren abiapuntu teorikoen informazioa eskaintzea, eta material kurrikularrak egokiro erabiltzen jakiteko behar diren teknika edo prozedura didaktiko eta metodologikoak (drama, espazioaren antolamendua, baliabide informatikoen erabilera, etab.) irakastea. Prestakuntza era hau ikas-turtearen hasieran egiten da funtsean.

b) Praktikari buruzko gogoeta:

Irakasleen esku jartzen diren material kurrikularretatik abiatuz egiten da. Material hauen aplikazioa ez da pasiboki eta akritikoki egiten, bakoitzaren praktika gainerakoekin praktikaekin kontrastuz baizik. Halaber, materialen ebaluazioa kontrastatu eta hobetzeko proposamenak egiteko balio izaten dute jardunaldi horiek. Prestakuntza modu hau ikasturtean zehar egiten da, hilean behin.

c) Lanaren segimendua ikasgeletan:

Proiektuaren koordinatzaile pedagogikoak, proiektuan inplikaturik dauden irakasleen ikasgeletara joaten dira aldizka-aldizka, praktika konkrituak ikusi eta aholku emateko asmoz. Behar izanez gero, koordinatzaileak bertako irakaslearen lekua hartzen du, horrela eredu posible bat izateko. Segimenduzko lan honetan, saio batzuk bideoan grabatzen dira, gero taldean aztertu eta ebaluatzeko xedearekin.

Oinarrizko prestakuntza orokorra gidatzeko, ingelesa irakasteko eta hizkuntzak irakaste-ko prestakuntza duen edozein irakasle izan daitekeen bezala, prestakuntza espezifikoak gidatzeko, ikasmaterialen egileen partaidetza beharrezkoa da.

1.2.5. IKASLEEN ETA PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

Ebaluazioaren atalari ere garrantzi handia ematen diogu geure proiektuan. Hiru ebaluazio mota bereiz daitezke: hizkuntza helburuen ebaluazioa, ikasleak ebaluatzeko probak eta proiektuko planifikazioaren ebaluazioa.

– **Hizkuntza helburuen ebaluazioa:**

Elebitasunaren planteamendutik eleaniztasunera aldatzeak, normala den bezala, proiektuaren planteamenduari buruzko kezka sortzen ditu: murgilpeneko bide goiztiarrak erabiliz jatorrizko eralduna den ikaslea euskalduntzea ez al da aski erronka eta buruhauste horri atzerriko beste hizkuntza baten irakaskuntza eransteko? Eleaniztasun goiztiarraren ordez ez ote litzateke egokiagoa atzerriko lehen hizkuntza geroago sartzea? Sortzen den kezka nagusia hau da: berrikuntza horrek ez ote dakar hizkuntzen arteko nahasketa eta ez ote da euskarerentzat kaltegarri izango?

Kezka hauen edo beste batzuen inguruan bukaerarik gabeko eztabaida mantendu daiteke, autore baten teoriak edo ez dakit nongo esperientziak, alde batekoak zein bestekoak, bakoitzak bere kolkora ekarri, baina kezka hauek argitzeko era bakarra ikaslearen emaitzak zintzo ebaluatzea da. Gure proiektuan ebaluazioaren objektibotasuna gordetzeko, kanpo-ebaluazioa egiten da. Esan nahi baita, talde ebaluatzailea osatzen duten pertsonak, proiektuaren barruan koordinazio pedagogiko edo antolamendu eginkizunak dituztenak ez bezalakoak direla. Proiektuaren kanpo-ebaluazioa Euskal Herriko Unibertsitateko Hizkuntzen Pedagogia Institutuak (HIZPEIk) egiten du.

Ebaluazio-hipotesiek, lehen aipatu ditugun helburuekin lotura estua dute:

Hautzaroko eta eskola-garaiko (lau urtetik aurrerako) eleaniztasuna litekeena da eta, agian, mesedegarria dugun egoera linguistikoa (elebitasun aditiboaren zentzuan), baldin honako eraldintza hauek errespetatzen badira:

- a) Irakasle eta gurasoen jarrera aldekoa bada. Hau da, planteatzen ari garen programa lortuko bada, gurasoen eta irakasleen borondatezko ekintza izan behar du eta programak ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan txertatuta egon behar du.
- b) Irakasleek aukeratzen den hizkuntza berriaren bidez elkarrekintza behikularren komunikagarritasuna eta efikazia uneoro garantizatu ahal izateko behar adinako eza-gupen teoriko eta material praktikoeekin kontaktzen badute.
- c) Hizkuntza berria irakasteko eta erabiltzeko behar beste denbora bada.

1. Hipotesia:

Atzerriko hizkuntza bat adin goiztiarrean (4-5 urte) sartzek ez dio kalterik egiten euskari, ez jarreran edo identifikazio-mailan, ez gaitasun mailan, baldin honako hiru premisa hauek betetzen badira:

- a) Beren lehen hizkuntza gaztelania dutenentzat murgilpen bideak eta euskara dutenentzat sorospen bideak erabiltzen badira.
- b) Hizkuntza sozialki dominatzailea –gaztelania- beranduago sartzen bada (8-9 urtetan), honen ikasketa segurtatua dagoelako eskola-eremutik kanpora duen presentzia zabal eta sendoagatik.
- c) Beste hizkuntzak (gaztelania, ingelesa, frantsesa) sartzek ez badu inoiz ere zalan-tzan jartzen euskarari eskolan emandako lehentasun-estatusa

2. Hipotesia:

Aurreko hipotesietan zehaztutako baldintzetan, atzerriko hizkuntza bat adin goiztiarrean (4-5 urterekin) sartzek, ez die ez gaztelaniari ez adimenaren gaitasunei kalterik egingo.

Hipotesi hauek egiaztatu ahal izateko, 1991-92. ikasturtean proiektuan sartu ziren 8 lehen ikastoletako 76 ikasleko lagina hautatu zen zotz formula erabiliz eta gauza bera 1992-93. ikasturtean sartu ziren beste 6 ikastoletako 60 ikasle hautatuz (talde esperimentalak). Bestetik, talde esperimentalek bezalako ezaugarriak dituzten eta proiektuan parte hartzen ez zuten 7 ikastoletako 90 ikasle hautatu ziren zotz formula erabiliz. (kontrol taldea).

Ebaluazioaren planifikazioa ondorengoa da:

Ikasturtea	Etapa/Adina		Euskara		Gaztelania		Ingelesa		Adimena		Jarrerak				
			E	K	E	K	E	K	E	K	Ik	Ir	T	G	Z
1991-92	H.H.	4/5	+	+			+					+	+	+	+
1992-93		5/6					+								
1993-94	L.H.	6/7	+	+	+	+	+		+	+	+	+	+	+	+
1994-95		7/8					+								
1995-96		8/9					+								
1996-97		9/10					+								
1997-98		10/11					+								
1998-99		11/12	+	+	+	+	+	+	+	+	+	+	+	+	+
1999-00	DBH	12/13					+								
2000-01		13/14					+								
2001-02		14/15					+								
2002-03		15/16	+	+	+	+	+	+	+	+	+	+	+	+	+

E = Talde esperimentalak
K = Kontrol taldea

Ik = Irakasleak
Ir = Irakasleak
T = Tutoreak
G = Gurasoak
Z = Zuzendaritza

H.H. = Haur Hezkuntza
L.H. = Lehen Hezkuntza

Ebaluazioaren planifikazio horretan ikus daitekeenez 1998-99ko aurtengo ikasturtea oso esanguratsua izango da aurreikusitako hipotesiak betetzen ari diren ala ez jakiteko. Hala ere, hipotesi horiek ezingo dira erabat egiaztatu ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 2002-03. ikasturtean bukatzen duten arte.

Orain arte biltzen ari garen datuen arabera ingelesari dagokionez (*1. Hipotesia*), urtero egiten dugu ebaluazioa. 4/5 urteko ikasleekin hasi eta zazpi urte segidan ebaluatu ditugu ikasle horiek. Urte batetik bestera ikusten den emaitzen hobekuntza eta aurreko egoerarekiko ingelesaren ezaupide eta erabilpen-mailen hobekuntza, bistakoa da. Gure ustez aurreikusitako helburuak lortzeko bide onetik goaz, baina ezin ditugu inolaz ere kezka uxatu: nolakoa izango da, batez beste, elkarren arteko komunikazio arruntean, ikasleen ahozko eta idatzizko harremanak ingelesez mantentzeko gaitasuna? Ikasleek gai izango ote dira ingelesez ikastar-lo bat behar den moduan jarraitzeko? Zenbat ikasle geratuko dira erdibidean? Horretarako behar ditugun irakasle prestatuak izango al ditugu? Geroak esan beza.

Euskarari dagokionez (*2. Hipotesia*), 1991-92. eta 1993-94. ikasturteetan talde esperimentalako eta kontrol taldeko ikasleek egindako euskararen ebaluazioko emaitzak konparatzen badira, ondorio hauek ateratzen dira:

- 1991-92. ikasturtean egindako euskararen hasierako ebaluazioan, ez dago alde esanguratsurik, emaitza globaletan, talde esperimental eta kontrol taldeen artean, nahiz eta ahozko ekoizpenean emaitzak nabarmen hobeak izan talde esperimentalaren alde, ulermenean, aldiz, kontrol taldearen alde.
- 1993-94. ikasturtean egindako kontrastean, euskararen emaitza globaletan ez dago aldaketarik, hau da, ez dago alde nabarmenik bi taldeen artean, baina, lehen, euskararen ulermenari dagokionez kontrol taldearen alde zegoen abantaila, orain, desagertu egiten da eta talde esperimentalak ahozko ekoizpenean lehen zuen aldea mantentzen da.

Emaitza hauek ikusita, ingelesa adin goiztiarrean sartzeak, orain arte bederen, euskarari kalterik ez diola egiten, are gehiago, euskara sendotzeko nolabaiteko mesedea ekartzen duela esan daiteke. Ikusi egin behar joera hori mantentzen denentz.

Gaztelania eta adimenaren gaitasunei buruz (*3. Hipotesia*), oraingoz 1993-94. ikasturtean jasotako hasierako ebaluazio datuak besterik ez dauzkagu. Ebaluazio horretan talde esperimentalaren eta kontrol taldearen artean alde nabarmenik ez dagoela egiaztatzen da. Egoera horren kontrastea ikasturte honetan egingo da.

– Ikasleak ebaluatzeko proba barematuak:

Gauza bat da proiektuko hizkuntz ebaluazioa egitea eta bestea ikasleak ebaluatzeko proba barematuak prestatzea. Azken ebaluazio honen helburua ziklo bakoitzaren bukaerako ingelesa ebaluatzeko probak prestatzea eta barematzea da. Erreferentzia horiek kontuan hartuz, ikastola bakoitzak proba horiek pasa ditzake eta bere ikastolan lortzen diren puntuazioak, proiektuan parte hartzen duten ikasle guztien emaitzen batez bestekoarekin konpara ditzake.

Proba hauek 1997-98. ikasturtearen bukaeran pasa dira eta aurtengo 1998-99. ikasturte-tik aurrera prest ditugu hala nahi duten ikastoletan erabili ahal izateko. Oraingoz, prest ditugu probak Haur Hezkuntzako bukaeran (6 urte), Lehen Hezkuntzako lehen zikloaren bukaeran (8 urte) eta bigarren zikloaren bukaeran (10 urte) pasatzeko. Gure asmoa da, proiektua aurrera doan neurrian, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren ziklora arte (16 urte) falta diren probekin osatzea eta, era berean, baremoak eguneratzea.


– Proiektuaren planifikazioaren ebaluazioa:

Urtero, ikasturtearen bukaeran, inkesta bat pasatzen zaie irakasleei eta ikasletoetako zuzendariei. Inkesta horren helburua urte horretako planifikazioaren ebaluazioa egitea da. Inkesta horren ebaluazio eremu nagusiak ondoko hauek dira: irakasleen prestakuntza, ikas-materialak, irakasleen inplikazio eta motibazio maila, ikastola barruko lan baldintzak eta aurreikusita dauden saiok eta sartzen diren orduak. Inkesta horien bidez informazioa esku-ratzen dugu, hurrengo ikasturtean planifikazioa hobetu ahal izateko.

2. BEHARREZKO ANTOLAKETA ETA KUDEAKETA BALDINTZAK

Bigarren atal honetan, horrelako berrikuntza batean eguneroko praktikan antolatzaileei sortzen zaizkigun arazoak, gure ustez zaindu behar diren baldintzak eta bidean sortzen zaizkigun kezkak aipatzen ditugu. “Baldintza” hitza erabiltzen denean, ohikoa izaten da bigarren hizkuntzak ikasteko eragina duten faktore kontestualak, indibidualak eta pedagogikoak azter-tzea ikuspegi psiko-sozio linguistikotik. Argi dago faktore horiek kontuan hartzea garrantziz-koa dela, baina gure ustez oso gutxitan aztertzen dira bigarren hizkuntzak ikasteko beharrezkoak diren antolaketa eta kudeaketa baldintzak. Gure hausnarketa azken bide horretatik abiatuko da.

Gure proiektuaren antolaketa-kudeaketa bideratzen duten protagonista nagusiak hiru dira: proiektuaren sustatzaile eta arduradunak (antolatzaileak), ikasletoetako bezeroak eta ikasleekin harreman zuzenean dauden irakasleak. Elementu hauek guztiak, jakina, ikasleen zerbitzuan aurreikusita dauden helburuak lor daitezen jartzen dira. Jarraian, aipatu elementu bakoitzak, geurea bezalako proiektua ondo bideratzeko bete behar dituen baldintzak azaltzen dira.




2.1. Proiektuaren sustatzaileei eta arduradunei dagozkienak (antolatzaileak)

Proiektu honetan Ikastolen Elkartea aitzindari da. Eleaniztasunaren planteamendua inda-rrean jartzeko erabakia berea izan zen, bere ardura da egitasmoa planifikatzea, proiektuan sartzeko baldintzak erabakitzea eta planifikazio horretan aurreikusten diren ikasmaterialak sortzea, irakasleak prestatzea, ebaluazio planteamenduak gauzatzea eta elementu horiek guztiak bideragarri izan daitezen giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak ziurtatzea.

Horrelako edo antzeko erakunde bat izatea beharrezkoa al da eleaniztasun goiztiarraren planteamendua gauzatzeko? Erantzuna erraza da. Beharrezkoa dena ez da erakundea, erakunde horrek betetzen dituen funtzioak ziurtatzea baizik. Eginkizun horiek era askotara ziurta daitezke, baina erakunde sendo batek asko erraz dezake eginkizun horien lorpena. Taldean aritzeak askoz ere bideragarriago egiten du geurea bezalako berrikuntza bat, izan ere ikastolei edo eskolei, bakarka arituz, zail egingo litzaieke ikasmaterialik beharrezkoenak, irakasleen prestakuntza eta ikasleen ebaluazioaren jarraipena ziurtatzea. Proiektu batean taldean aritzearak badu abantailarik baina baita mugarik ere. Adibidez, proiektuan sartzeko baldintza batzuk bete behar dira eta horrek autonomia mugatzen du, edota taldeari eskaintzen zaizkion zerbitzuak, diru publikoa ez badago tartean, ordaindu egin behar dira.

Gure esperientzian oinarrituta, ondorengo ezaugarriak eta baldintzak kontuan hartzea komeni dela iruditzen zaigu geurearen antzeko proiektuak bideratzerakoan:



2.1.1. PROIEKTUA BEHARREZKOA, ARGIA ETA BIDERAGARRIA IZATEA

Edozein proiektu aurrera eramaten hasi aurretik, premien ebaluazioa eta egoeraren azterketa egitea beharrezkoa da. Adituen iritziz, era askotako premiak dira: normatiboak, sentitutakoak, azalduetakoak edo eskatutakoak, konparazioz eginak eta prospektiboak. Premiak zenbat eta handiagoak izan orduan eta proiektuaren beharra handiagoa izango da eta ondorioz erakargarriagoa.

Premien ebaluazioarekin batera proiektuaren diseinua egiteko beste elementu bat egoeraren azterketa egitea da. Zein dira testuinguruaren ezaugarriak eta proiektua hasi aurretik hobetu nahi den arazoaren egoera? Zer-nolako baldintzak aurreikusten dira proiektuaren aplikazio-fasean? Zein baliabide dira beharrezkoak eta zein eskuragarriak? Nolakoak dira eskura ditzakegun giza baliabideak, ekonomikoak eta funtzionalak? Galdera hauei erantzuteak proiektuaren bideragarritasuna nolakoa izan daitekeen argitzeko asko balio du.

Aurreko urratsak egiten diren neurrian proiektuaren diseinua argiagoa izateko baldintzak betetzen dira. Hau da, proiektuaren helburuak defini daitezke, proiektuaren plangintza premien eta egoeraren baldintzei hobeto egokitu dakieke, plangintzako ekintzak eta horretarako behar den denbora hobeto batera daitezke.

Aitor dugu baldintza hau garrantzi handikoa dela. Ados gaude proiektuaren diseinua hasieratik zenbat eta argiagoa izan hobe dela esateko. Hala ere, esperientziak erakusten digu, proiektuaren prozesua indarrean jartzen den neurrian, denborarekin egoera eta premiak aldatu egiten direla eta aurreikusitako helburuak eta hasierako planifikazioa ere askotan egokitu egin behar direla.

2.1.2. PROIEKTUAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK ARGI JARTZEA ETA KONTROLATZEA

Baldintza hau geure esperientzian asko baloratzen dugu, beharbada hasieran proiektuan parte hartzeko baldintza horiek argi ez genituelako eta bere garaian argi jarri behar diren baldintzak ondoren jartzen saiatzea eta zuzenketak egitea asko kostatzen delako.

Une honetan, proiektuan sartzeko erabakia hartu aurretik ikastolarekin harremanak sortzen ditugu eta bertako gestio-batzorde, zuzendaritza eta klaustroarekin hitz egiten dugu. Harreman hauen bidez proiektuaren ezaupidea, ikastolaren egoera eta proiektuan sartzeko baldintzak argitzen saiatzen gara. Prozesu honen ondoren, ikastolak Elkarteari eskaera ofiziala egiten dio proiektuan parte hartzeko bete behar diren baldintzak beteko dituela izenpetuz.

Hitzarmen bat izenpetzeak seriotasun handia ematen dio proiektuari, baina ez da nahikoa. Izenpetutako baldintza horien jarraipena egitea, baldintzak betetzen ez direnean dago-kionari ohartaraztea eta konponbideak sendo baina malguki elkarrekin aurkitzen saiatzea garrantzi handikoa da proiektuaren etorkizunerako. Jarritako baldintza horiek zintzo betetzen ez badira, proiektuaren bideragarritasuna zalantzan jarriko da eta helburuak ezingo dira erdietsi. Ondorioak kaltegarri izango dira ikastolarentzat berarentzat eta proiektu osoaren sinesgarritasunarentzat.

2.1.3. IKASMATERIAL EGOKIAK ESKURATZEA EDO PRESTATZEA

Aurkezpen honen lehen atalean baldintza honek gure proiektuan duen garrantziaz aritu gara. Gure proiektuaren muina eta bihotza dela esaten genuen, ikasmaterialen sorkuntzaren inguruan uztartzen baitira atzerriko irakaskuntza goiztiarraren planteamendu teoriko eta metodologikoak, irakasleen prestakuntza, ikasmaterialen ebaluazio eta hobekuntza, ikasleen ebaluazioa eta talde lana.

Egia da 4 urterekin hasi eta 16 urte arte proiektuaren neurriko ikasmaterialak sortzea ez dela erabaki arrunta, pribilegiozko egoera baizik, eta alde horretatik ikasmaterialak sortzeko baldintza ezin dakiekeela inolaz ere guztiei eska. Oso prozesu konplexu eta garestiak dira. Baina zalantzarik ez dago horrelako aukera batek ikaragarritzko sendotasuna ematen diola proiektu bati. Batetik, curriculumaren sendotasuna eta, bestetik, giza baliabideen sendotasuna, egile lanetan ari direnek eginkizun horretan ikasten dutena irakasleen prestakuntzan jartzen duten neurrian.

Egoera guztietan ikasmaterialak sortzea ezinezkoa bada ere, ikasmaterial egokiak eskuratzeko ezinbesteko baldintza dela iruditzen zaigu. Ezagutzen ditugu ikasmaterialik gabe bideratu nahi izan diren hitz ederretan oinarritutako proiektu handi-mandiak. Proiektu horien arabera irakaslearen eginkizuna da antolatzaileek erabakitzen dituzten norabide teoriko eta pedagogiko jakintsuak ikasmaterial bihurtzea. Guk dakigunez, proiektu horiek porrot egin dute eta frustrazio handiak sortu dituzte.

2.1.4. IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA BIDERATZEA

Puntu honetan erabateko adostasuna ematen da. Denek aho batez aitortzen dute baldintza honen garrantzia eta guk ere bai, jakina. Irakaslea, ikaslearekin batera, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuko protagonista nagusia da, bera baita ekintza didaktikoaren bitartekaritza egiten duena. Oso argi dugu ezer gutxi balio duela ikasmaterial zoragarri batek, baldin gero inolako gaitasunik ez duen irakasle baten eskuetan jartzen bada.

Aurreko puntuan adostasun osoa badago ere, ez da gauza bera gertatzen irakasleen prestakuntza ereduarekin. Batzuentzat, irakaslearen funtzio nagusia hizkuntza edukiak ikasle-
ei helaraztea da, eta, ondorioz, irakaslearen prestakuntzaren bidez hizkuntz eduki horiek ondo menderatzen dituela ziurtatzea. Beste batzuen ustez, irakaslearen prestakuntzaren helburua irakasle trebea, hau da, gelan sortzen diren arazoak konpontzeko teknikak erabiltzen dakiena prestatzea da. Eta beste beste batzuen ustez, azkenik, prestakuntzaren helburu nagusia, eguneroko praktika hausnartuz, analizatuz eta interpretatuz, ikertzaile kritiko bihurtzea da.

Gure ustez prestakuntzaren hiru ikuspegi horiek bateratu egin behar dira. Beharrezkoa da hizkuntza bera irakasleak ondo menderatzea. Beharrezkoa da irakaskuntza-ikaskuntza prozesua bideratzeko trebezia eta teknikak menderatzen dituen irakaslea. Beharrezkoa da edukien, tekniken eta ikasmaterialen aplikatzaile huts izan ordez, eguneroko praktikaren hausnarketan oinarrituz, bere bidea aurkitzen dakien irakaslea.

2.1.5. PROIEKTUAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA ZIURTATZEA

Proiektua jarraitzea eta ebaluatzea beharrezkoa da baldin eta proiektuaren nondik-norakoak ezagutu eta behar diren hobekuntzak egin nahi badira.

Proiektuaren jarraipena era askotara egin daiteke. Adibidez, era informalean irakasleengandik edo ikasleengurasoengandik edota zuzendariengandik jasotzen den informazio horrek asko balio izaten du proiektuaren jarraipena egiteko. Gure proiektuaren jarraipena egiteko erabiltzen ditugu beste bi bide formalago ere: zuzendariak osatzen duten "Jarraipen eta aholku taldea" eta ikasturtearen bukaeran egiten dugun inkesta. "Jarraipen eta aholku taldearen" helburu nagusiak ikasturteko planifikazioaren jarraipena egitea eta proiektuaren etorkizuneko beharrak aurrez aldetik ikustea eta horiei erantzuteko neurriak denborarekin hartzea dira. Esan bezala bilera hauek ikastoletako zuzendariarekin batera egiten dira, ikasturtean zehar lau bilera egiten ditugu, eta antolatzaileon iritziz garrantzizkoak dira horrelako proiektuetan hain eragin handia duten zuzendarien inplikazioa eragiteko. Proiektua jarraitzeko beste bidea ikasturtearen bukaeran inkestaren bidez egiten duguna da. Inkesta honetan ikasturte garaian planifikatu diren elementu guztiei buruzko galdera sorta dator eta ikastoletako zuzendaritzakoen eta proiektuan parte hartzen duten irakasleen erantzunak jasotzen ditugu. Informazio hori hurrengo ikasturteko planifikazioa hobetzeko oso baliagarria izaten da.

Proiektuaren ebaluazioari buruz ez gara gehiago luzatuko. Gogoratu besterik ez ditugu egingo aurkezpen honen lehen atalean proiektuaren eta ikasle ebaluazioari buruz esanda-koak.

2.1.6. AURREKO EGINKIZUN HORIEK BIDERATZEKO GIZA BALIABIDE EGOKIAK ETA BALIABIDE EKONOMIKOAK AURKITZEA

Irakaslearen prestakuntza hain garrantzizkoa bada gelako irakaskuntza-ikaskuntza prozesua bideratzeko, era berean giza baliabide egokiak aurkitzea beharrezkoa da proiektuaren antolaketa eta kudeaketa eginkizunak ondo bideratzeko. Zein da proiektuaren antolaketa eta kudeaketa gauzatzeko beharrezkoak diren giza baliabideak aukeratzeko formula?

Proiektuaren zuzendaritza taldearen aukera Ikastolen Elkartearen erabakia da eta horretan ez dugu ezer bereizgarririk ikusten. Zuzendaritza taldearekin batera ikasmaterialen sorkuntza lanerako eta irakasleen prestakuntzarako irakasleak aukeratzeko eran, ordea, bada ohikoa ez den taldea osatzeko eta funtzionatzeko era. Proiektuaren aplikazioan nabarmentzen diren irakasleak eta hauen artean horretarako prestatzen direnak, eguneroko gela-lana utzi gabe, ordutegiaren zati bat ikasmaterialak sortzeko edota irakasleen prestakuntza egiteko aukeratzeko dira. Formula honek abantaila nabarmenak ditu ikasmaterialak egiteko, teoria eta praktika ondo uztartzeko talde egokiak sortzen baitira. Irakasleen prestakuntzari dagokionez, berriz, proiektuaren sinesgarritasunak asko irabazten du, gelan dagoen irakaslearentzat ez baita gauza bera gelatik urrun dagoen baten edo bere egoeran dagoen irakasle baten esplikazioa hartzea. Formula honek antolaketaren aldetik ere abantailak baditu, izan ere antolatze-ko era arina eta malgua baita eta burokrazian erortzeko arriskuari ihes egiten zaio. Formula honek balio erantsia ematen dio proiektuari, irakasle hauekin egiten den inbertsioa errentagarritasun handikoa baita, lehen, beren heldutasun profesionalerako eta, ondoren, proiektuarentzako eta irakasle hauek lan egiten duten ikastolentzako. Hala ere, baditu mugak. Horrelako egoeran dagoen irakasleari esfortzu handia eskatzen zaio eta horrek nekea dakar eta ondorioz iraunkortasunik eza. Beste aldetik, irakasle horren ikastolari, daukan plantillaren arabera, ordutegiari buruzko arazoak sor diezazkioke.

Bestetik, gauza jakina da baliabide ekonomikorik gabe ezin dela inolaz ere proiektu bat tajuz eraiki. Gure proiektuan, ekonomia-rikirik dagoenez, bi egoera bereiz daitezke: batetik, irakasleen prestakuntza eta ikasleen ebaluazio gastuak eta, bestetik, ikasmaterialen sorkuntza gastuak. Irakasleen prestakuntzari eta ikasleen ebaluazioari dagokienez, autofinantziazioaren planteamendua egiten dugu, hau da, proiektuaren kostua parte hartzen duten ikastolen artean ordaintzen da. Kontzeptu honetan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren "Garatu" programaren bidezko diru-laguntza jaso dugu. Ikasmaterialen sorkuntzaren kostuak Ikastolen Elkartek bere gain hartzen ditu. Kostu hauek Ikastolen Elkartearentzat zama handia dira eta zertxobait arintzen da Europako Elkarteko Sokrates Lingua D programaren eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren diru-laguntzari esker. Aipatu gastu horiez aparte, ikastolak bere aldetik egin behar dituenak daude. Horien iruzkina hurrengo atalean egingo dugu.



2.2. Parte hartzen duten ikastolei eta eskolei dagozkienak

Proiektua bideratzeko beste eragilea ikastola da. Gure kasuan erakunde batek (Ikastolen Elkartek) hartzen du proiektuaren aitzindaritzza eta bereganatzen du proiektuaren diseinu eta aplikaziorako beharrezkoak den azpiegituraren prestaketa: ikasmaterialak, irakasleen prestakuntza eta ikasleen ebaluaziorako proposamena. Hori gertatzen ez denean, ikastolak/eskolak bete beharko ditu eginkizun horiek. Kasu batean zein bestean eskolaren esku geratzen da proiektuaren aplikazioa.

Zein dira gure proiektua ondo bideratu ahal izateko ikastolak bete behar dituen baldintzak?

2.2.1. BORONDATEZKO HAUTAKETA ETA PROIEKTUAREKIKO ATXIKIMENDUA:

Atzerriko hizkuntzaren irakaskuntza goiztiarraren berrikuntza –oro har beste horrenbeste esan daiteke beste edozein berrikuntzaz–, ezin daiteke indarrez derrigortu. Hezkuntzaren erreformak egiten dituzten administrazioek berrikuntzak goitik behera, zentrotik periferiara, dekretuz egiteko joera izaten dute. Oso planteamendu razionala eta logikoa da, baina nahiz eta berrikuntza horiek sarritan oso interesgarriak izan, gehienetan porrot egiten dute. Porrot horren arrazoiak, adituek diotenez, aldaketa egiteko gune eragilea eskola bera izatea da. Ekimena eskola barruan sortzen ez bada, ez da benetako aldaketarik egingo.

Horregatik ematen diogu honenbesteko garrantzia, proiektuan sartzeko eskaera egin aurretik, ikastolako gobernu-organismoak, zuzendaritzak eta klustroak proiektua eta antolatzaileek jartzen ditugun baldintzak ondo ezagutzeari, eta eztabaida prozesuari. Esperientziak erakusten digunez, gurasoen eta ikasleen atxikimendua erraz lortzen da. Gurasoentzat oso eskaintza erakargarria da, izan ere aurretik zuten elebitasunaren planteamenduari eutsiz, euren seme-alabek atzerriko beste bi hizkuntza ikasiko dituztela esaten zaie eta horietako bat ondo menderatzeko eta erabiltzeko moduan gainera. Ikasleek ere begi onez ikusten dute berrikuntza hau. Normalean, eta ulertzekoa da, zalantzarik handienak irakasleek izaten dituzte, izan ere berrikuntza horretan hartzen den konpromisoaren zamarik handiena euren bizkar gainera etorriko da. Alde onak eta txarrak zein diren edo izan daitezkeen aurretik aztertzea, ondoren erabaki heldua hartzeko eta erabaki sendoa izateko era bakarra da. Ikastola bakoitzak markatuko du bere bidea erabakia hartzerakoan. Guri antolatzaileei gehien axola zaiguna da erabakia zentro osoarena izatea eta ez hezkuntza komunitateko sektore batena. Horregatik, hezkuntza komunitateko ordezkaritza jasotzen duen gobernu-organismoaren idatzizko eskaera egin behar da, antolatzaileek proiektuan parte hartzeko jartzen ditugun baldintzak beteko dituztela hitz emanez.

Laburbilduz, honelako programa batean sartzeak, gurasoen gogoko aukera bati eta programan inplikaturako ikastetxearen eta klustroaren aldetiko konpromiso kolektibo bati erantzun behar dio.

2.2.2. ZUZENDARITZA SENDOA

Nahiz eta proiektuan sartzeko erabakia borondatezkoa izan eta idatzizko hitzarmen baten bidez borondate hori bermatu, hasierako erabakia mantendu egin behar da bidean zailtasunak eta oztopoak sortzen direnean. Adibidez, proiektu honek aldaketak eragiten ditu ikastoletan: ordutegia aldatzen da eta horrek irakasleen ordutegia bermoldatzea ekartzen du, ingelesari ordu gehiago eskainiz eta beste arlo batzuei kenduz; irakasle batzuk erreziklatu egin behar dira eskaera berriari egokitzeko. Aldaketa horiek irakasleen klustroan erresistentzia sortzea ez da harriztekoa. Proiektuak 12 urteko iraupena du eta iraupen luzeko prozesu horretan gorabehera asko gerta daiteke. Une horietan ez badago gauzak oso garbi dituen

eta proiektuarekin bat egiten duen gogo handiko zuzendaritza talderik - inori ez baitaio gus-tatzen istiluei aurre egitea-, amore emango da, eta proiektua, baldintza bideragarriak beteko ez direnez, erdibidean geratuko da.


Berrikuntzak gauzatu ahal izateko, sarritan, irakaslearen lan baldintzak aldatu egin behar izaten dira. Adibidez, eskolatik kanpo prestakuntza saioak egin behar izaten dira, edo gelako lan orduak zerbait murritzeta komeni izaten da. Orduan, berrikuntza horretan parte hartzen duen irakaslea bereizi egiten da eta berdintasun formalaren hastapen sakratua hautsi egiten da. Egoera horiek kontuz eta abileziak kudeatzeko zuzendaritza talde sendoa behar da, oste-ra irakasleen artean berrikuntzaren ondorioz tirabirak sortuko baitira.

2.2.3. EKONOMIA BALIABIDEAK

Horrelako proiektu bat aurrera ateratzea garestia da. Atzerriko lehen hizkuntzaren irakas-kuntza programa ofizialetan Lehen Hezkuntzako 3. mailatik aurrera hasten da (8-9 urte) eta ikasten hasteko adina Haur Hezkuntzara (4-5 urte) aurreratzen bada irakaslearen kostua ikas-tolaren kontura doa. Adin goiztiar horietan atzerriko hizkuntzak irakastea berrikuntza handia da eta horregatik irakaslearen prestakuntza beharrezkoa da lana egiteko era eta ikasmaterial berrietara egokitzeko, eta hori egitea ere dirua kostatzen da. Irakasle eta ikasleentzat sortzen diren ikasmaterialak erostea ere dirua kostatzen da. Diru hori gurasoek ordaindu behar dute. Egia da gaur egun guraso askok, eskolaz kanpoko ekintzetan, atzerriko hizkuntzak ikasteko askoz ere diru gehiago ordaintzen dutela ikastolan ingelesa adin goiztiarretik ikasteko ordain-tzen dutena baino eta kasu horietan proiektu honen bidez dirua aurreratzen dela. Dena dela, abantaila guztiak proiektuaren alde badaude ere, gurasoen egoera ekonomikoa beti kontuan izan beharko da. Gure iritiz, horrelako proiektu bat ikastolari asko kostatzea ez da ona, azken batean proiektua ezinezko bihurtu lukeelako, baina zerbait kostatzeak proiektuari seriotasuna ematen dio eta bata-bestearekiko exijentzia eskatzen du, eta hori ona da.

2.3. Parte hartzen duten irakasleei dagozkienak

Irakaslegoari dagozkion baldintzak aurreko ikastola/eskolaren atalean sar genitzakeen, baina proiektuaren barruan duten garrantzia kontuan hartuz, egokiago iruditu zaigu leku bere-zia ematea. Irakaslea da hezkuntza sisteman dagoen bitarteko nagusia. Proiektuaren promoto-



reok edo arduradunok geure eginkizunak oso ondo bete ditzakegu eta ikasmaterial zoragarriak sortu, irakasleen prestakuntzarako planifikazio ezin hobea asmatu eta ebaluaziorako tresnarik baliagarrienak sortu. Tresna horiek guztiak azken batean irakaslearen eskuetan jartzen dira eta bere bitartekotzaren arabera eragingarri edo alferrikako izango dira. Gauza bera esan dezakegu ikastolaren baldintzei buruz. Ikastolak bete ditzake oso ondo aipatu ditugun baldintza guztiak, baina azken batean irakaskuntza-ikaskuntzaren prozesua irakaslearen eskutik dator.

Irakaslearentzat, bere eginkizuna ondo bete dezan, guztiz baliagarriak dira ondorengo baldintzok:

2.3.1. IRAKASLEAREN EGOERA, SOSLAIA ETA PRESTAKUNTZA

Zer nolako irakasle-mota daukagu? Galdera honi ematen zaion erantzunak erruz baldintzatzen du proiektuaren antolaketa guztia, azken batean giza baliabideen arabera egokitu behar baitira proiektuak. Hitz gutxitan esanda, ikastoletan bigarren hizkuntza bat irakasteko (euskara) giza azpiegitura sendoa daukagu, baina ingelesa eta are ingelesez irakasteko ez hain sendoa. Momentuon, guztira 120 irakasle inguru ari dira proiektuan parte hartzen. Hauetatik gehienak lehendik ingeleseko irakasle espezifikokoak ziren, baina nahiko ugari dira lehen euskaraz irakasten zuten eta ingelesa irakastera pasa diren irakasleak. Gehienak irakaskuntzan urte dezente egin dituzte eta 30-50 urtekoak dira. Oro har, irakaskuntzan esperientzia handia dute, gelako dinamika oso ondo ezagutzen dute eta oinarri profesional sendoak dituzte, baina ingelesaren ezagutza mailari dagokionez, era guztietako egoerak egon arren, batez besteko maila ez da handia. Horixe da abiapuntuko egoera.

Zer nolako irakasle mota behar dugu? Geure artean behin baino gehiagotan eztabaidatu dugu gure proiekturako irakasle idealaren soslaia nolakoa izan behar lukeen. Proiektuarekin hasi ginenean, hizkuntza berriaren irakaskuntzan lehen pausoak emateko, dramatizazioak eta ekintza komunikatiboak garrantzi handia zutela ikusirik, irakaslearen komunikatzeko gaitasunari ingelesa ondo ezagutzeari baino garrantzi handiagoa ematen genion. Geroztik, hizkuntza eredu jator baten eraginaren garrantziaz gero eta gehiago ari gara jabetzen. Laburbilduz, honako ezaugarriak dituen irakasleak behar ditugu: ingelesa ondo dakitenak eta 14 urte baino gehiago dituztenei ikastarlo bat ingelesez irakasteko gai izango direnak; komunikatzeko gaitasun handia dutenak; ingelesa irakasteko metodologiak eta teknikak menderatzen dituztenak; ikasmaterialak erabiltzeko, moldatzeko, erabakiak hartzeko eta praktikari buruzko hausnarketak egiteko gaitasuna dutenak. Hizkuntza (ingelesa), hizkuntzak irakaste-teoriak ezagutu eta, aldi berean, praktikan jartzen dakien irakasle-mota da honelakoa.

Nola pasa gure egoera mugatu horretatik egoera desiragarria? Berez, bide bat baino gehiago aukera zitekeen. Irtenbide bat ingelesa ondo dakiten irakasle berriak, natiboak edota ingelesez oso ongi dakiten gure gazteak, kontratatzea litzateke. Aukera horrek hizkuntzaren gaitasunaren aldetik abantaila handiak izango litzuke, nahiz eta ikuspegi profesionaletik begiratu, esperientzia duten irakasleen aukerarekin konparatuz, mugak ere izango litzukeen. Egoera laboralak, ordea, plantillaren birziklapena egitea eskatzen du. Noizbehinka irakasle berriak behar ditugu eta orduan oinarritzko prestakuntza sendoa duen irakaslea aukeratzea posible da, baina gehienetan barruan dauden irakasleekin kontatu behar dugu. Aukera horrek, esan bezala, abantailak eta mugak ditu. Eta mugak gainditzeko bidea irakaslearen prestakuntza sakon planteatzea da. Puntu horretaz egiten dugun planteamendua lehen aurkeztu dugu.

2.3.2. MOTIBAZIOA

Ondo prestatuko irakasleak edukitzea proiektua bideratzeko garrantzi handiko baldintza da, baina prestakuntzarekin batera irakasteko gogoia eta poza behar dira, bestela irakaslearen gaitasun potentzial horiek ez dira kanpora komunikatuko.

Gure irakasleek egiten duten lana neketsua da. Irakasleen lana neketsua da, baina oraindik neketsuagoa da gela bateko tutore gisa egun osoz lanean aritu ordez, irakasle espezifikiko bezala ikasmaila desberdinetan gela batetik bestera dantzan ibili behar denean, eta are gehiago 4 eta 5 urteko umeekin ordu erdiko zazpi saio egunero egin behar direnean. Egun batean eta bestean, urte batean eta hurrengoan erritmo horri eustea nekagarria da eta irakaslearen motibazioan eragin kaltegarria izan dezake.

Ikasturtearen bukaeran irakasleei pasatzen diegun inkestako galdera bat hauxe da: “Nola baloratzen duzu zeure irakasteko motibazioa?”. Ihazko batez besteko erantzuna, Otiik 10 puntura, 8.5ekoa da. Gure ustez motibazioa hain goian mantentzeko arrazoiak, irakasleek bakarka beren gelan aritu ordez, beste ikastoletako irakasleekin beren lana eta esperientziak trukatzeko aukera dutelako gertatzen da batez ere.

2.3.3. EGONKORTASUNA

Ikastola batzuetan, batez ere titularitate publikoa duten ikastoletan, behin-behineko irakasleak dituzte, eta urte batetik bestera irakasleak aldatzen dituzte. Hori behin gertatuz gero gaitzerdi, baina badira urtero arazo berarekin dabiltzanak. Irakaslegoaren egonkortasun minimoa ez bada ziurtatzen, ezin da inolaz ere horrelako proiektu batean hasi.

2.3.4. ZIKLO ETA ETAPEN ARTEKO KOORDINAZIOA

Iraupen luzeko proiektu batean oso erraza da, adibidez, eskola bateko 10 urteko umeekin ari den ingeleseko irakasleak gauza handirik ez jakitea 8, 6 edo 4 urterekin ari den ingeleseko irakaslearen lanari buruz. Eta gertatzen da, baita ere, maila jakin baten barruan ingeleseko, euskarazko edo gaztelaniazko irakasleek bata bestearen lanaren berri ez izatea.

Ingelesa edo ingelesez irakasten ari diren irakasleen arteko harremana, proiektuaren hasieratik bukaera artekoa, ziklo eta etapa desberdinak koordinatuz, lanaren perspektiba osoa edukitzeko eta bakoitzaren lanari zentzua aurkitzeko bide egokia da. Bestetik, perspektiba luze horrek mailen arteko programazioaren lotura, metodologiaren jarraipen prozesua eta ebaluazioren egokitasuna bideratzen asko laguntzen du. Alde honetatik, Ingeleseko Departamentua antolatzea laguntza handikoa izan daiteke.

Eleaniztasunaren planteamenduan ingelesaren irakaskuntza goiztiarrarekin, euskara, gaztelania eta atzerriko bigarren hizkuntza batera ikasten dira. Hizkuntza batean jasotako ekarpenak beste hizkuntzetan ere baliagarri izan daitezen, hizkuntzen arteko planteamendu bateratua egitea oso mesedegarria izan daiteke hizkuntza gaitasuna areagotzeko. Alde honetatik, Ziklo baten barruko hizkuntzetako irakasleen arteko koordinazioa oso emankorra izan daiteke.

AURRERA BEGIRA

Horrelako berrikuntza bat aurrera eramatea ez da guretzat eta, gure ustez, ez beste inorentzat, gauza erraza. Horrelako berrikuntza batek, ikusi dugunez, aldaketa ugari eskatzen ditu eta baldintza sendoak behar dira aldaketa horiek zuzen bideratzeko.

Proiektua hasi zenez geroztik orain arte zazpi urte pasa dira eta beste bost falta zaizkigu lehen promozioa helmugara iristeko. Orain arteko balantzea, oro har baikorra da. Irakasleen emaitzei dagokienez, ikasturte honetan egingo dugun ebaluazioa garrantzizkoa izango da aurreikusita ditugun helburuak erdiesteko bide onetik goazen ala ez jakiteko, baina orain arte jasotzen ari garen emaitzak, oro har, itxaropentsuak dira. Urte hauetan proiektuaren azpiegi-

tura asko sendotu dugu: onarpen handiko ikasmaterialak sortzen ari gara, eta irakasleen prestakuntza maila hizkuntzaren aldetik eta hizkuntzaren didaktika aldetik asko hobetu da. Irakasleen motibazio maila oro har handia da. Aukera izan dugu beste herrialdeetako irakasleekin harremanak izateko, elkarrekin lana egiteko eta horrek gure buruarekiko ziurtasuna eman digu. Proiektu honetan egindako metodologi berrikuntzak aberasgarri izan dira euskara irakasteko metodologiak hobetzeko. Proiektuaren ospe soziala eta onarpen internazionala nabarmenak dira. Balantzea oro har baikorra izateak ez du esan nahi, ordea, proiektuan daudden 47 ikastolen artean arazorik ez dagoenik, adibidez, aurreikusitako ordu eta saio kopuruak betetzerakoan, edo irakaslegoaren egonkortasunean eta prestakuntzan, edota ikastola batzuetako proiektuarekiko atxikimenduan.

Aurrera begira, beste bost urte gehiago falta dira proiektuan 1991-92. ikasturtean hasi ziren ikasleak derrigorrezko irakaskuntza bukatzen den DBHko helmugara iristeko (16 urte). Hainbeste aldagairen baitan dagoen berrikuntza sakon eta konplexuan inoiz ez daiteke aurretik jakin non sor daitekeen arazoa eta katea nondik hauts daitekeen. Antolatzaileok gauza izango ote gara ikasmaterial egokiak sortzen jarraitzeko, irakasleen prestakuntzan asmatzeko, proiektuaren jarraipena eta ebaluazioa ziurtatzeko? Ikastolak (guraso, irakasle, ikasle) mantenduko al du proiektuarekiko atxikimendua, beteko al du finkatzen den ordutegia? Izango al ditugu behar ditugun irakasle prestatu eta motibatuak?. Ikasleek gai izango ote dira DBHko 2. Zikloa bukatzen dutenean (14 urte), ikastarlo bat ingelesez jarraitzeko?.

Galderak, zalantzak ez dira falta. Une hauetan, guztien artean, batez ere bi kezka nagusi ditugu. Batetik, gure proiektua ikasle guztientzat da, ez da selektiboa. Baina egiten ditugun ebaluazioetan nabarmena da ikasleen artean ingelesean ematen diren maila desberdinak. Ikasleek zenbat eta gehiago aurreratu ikasketetan, orduan eta nabarmenagoa da joera hau. Zer gertatuko da gure ikasleek 14 urtera iristen direnean eta ingelesarekin zailtasunak dituzten ikasleek ikastarlo bat ingelesez ikasi behar dutenean? Egia da beste ikastarloetan ere gauza bera gertatzen dela eta ikastarlo horietarako ematen den indibidualizazioaren irtenbide teorikoa baliagarri dela ingelesarekin zailtasunak dituztenentzat ere. Denok dakigu irtenbide teoriko horrek praktikan dituen mugak. Beste kezka irakaslearen prestakuntza-maila da. Gauza bat da ingelesa irakastea eta bestea ingelesez irakastea. Irakasleen soslaiak kasu batean eta bestean desberdina da. Ingelesa irakasteko, ingelesa dakien eta irakasten dakien irakaslea behar da, eta ingelesez irakasteko, aurreko ezaugarri horiez gainera, ikastarlo bat ezagutu eta jakintza-arlo horretako titulua behar da. Ingelesa irakasteko, maila oneko irakasleak aurkitzea zaila bada, are zailagoa da ingelesa ondo ezagutzen duen eta jakintza-arlo batean titulua duen irakaslea aurkitzea. Egoera honi irteera aurkitzeko hasi gara saio batzuk egiten, baina ez da erraza izango.

Aurkezpen honetan geure esperientziaren azalpena egin dugu eta beharrezkoak ikusi ditugun antolaketa eta kudeaketa baldintzak aipatu ditugu. Badakigu gure esperientzian beharrezkoak diren baldintzak ez direla, besterik gabe, aplikagarri beste edozein testuingurutan, baina baldintza horiek edo antzekoak izan, badakigu, baita ere, eleaniztasun goiztiarreko planteamendu batek, bideragarri izateko, antolaketa eta kudeaketa baldintza sendoak beharko dituela. Gure iritziz, laburki esanda, gure testuinguruan, jarraian aurkezten ditugun baldintzak iruditzen zaizkigu funtsezkoenak:

- 1) Euskarak eskola eremuan hizkuntza nagusia izan behar du eta eskola eremuko hizkuntza planifikazio guzti-guztiek gutxienez aurrebaldintza hori garantizatu beharko dute, atzerriko hizkuntzaren ikasketa euskara-mailaren eta jarreraren kaltetan gerta ez dadin.
- 2) Atzerriko hizkuntza irakasteko diseinua eta oinarrizko plangintza argia behar da 4 urtetik hasi eta 16 urte arte (derrigorrezko irakaskuntza bukatu arte). Plangintza horre-

tan, lortu beharreko helburuak, garatu beharreko ekintzak, giza baliabideak, materialak eta funtzionalak, arduradunak, ebaluzioa, denboralizazioa eta prestakuntza ondo planifikatu behar dira. Plangintza horretako elementu guztiak dira garrantzitsuak, baina gure esperientzian oinarrituz, irakasleen egokitasuna eta egonkortasuna, ikasmaterial egokiak, irakasleen prestakuntza eta jarraipena, eta finkatutako ordu eta saio kopurua errespetatzea azpimarratuko genituzke guztien artean.

- 3) Atzerriko hizkuntzaren irakaskuntza goiztiarra egiteko erabakia ikastetxe bakoitzak bere borondatez eta dituen ahalbideak ondo neurtuz hartu behar du. Erabaki hori hartzeko garaian ahalik eta irakasle eta guraso guztien adostasunik zabalena jasotzea komeni da eta hasieratik argi edukitzea 4 urterekin hasten den proiektua 16 urte arte luzatzen dela. Ikastetxeak, aurkezten zaion plangintza aztertu eta eztabaidatu ondoren, hartzen dituen konpromisoak idatziz izenpetzea komeni da konpromisoaren iraunkortasuna bermatzeko.
- 4) Horrelako berrikuntza konplexu eta zaila aurrera eramateko, ikastetxeek, bakarka bere kabuz aritu ordez sarea sortuz taldean eta erakunde sendo baten gidaritzapean aritzen badira, behar diren baliabideak askoz ere errazago eskuratu ahal izango dituzte.

Ezagutzen ditugu ilusio handiz hasitako horrelako esperientziak eta ilusio horren tamainako frustrazioarekin bukatu direnak erdibidean porrot eginda gero. Une honetan atzerriko hizkuntzaren irakaskuntza goiztiarraren aldeko eskaera dago, modan dago eta salgarria da, baina berrikuntza hori posible eta onuragarri izateko antolaketa eta kudeaketa baldintzak betetzea beharrezkoa dela uste dugu. Horregatik diogu, eleaniztasun goiztiarrari bai, baina ez edonola.